

## UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTAREN LABURPENA

2017ko otsailaren 21eko 10:00etan, Bilboko Ikerbasqueren egoitzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzardea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziako zuzendari Eva Ferreira Andrea, Joaquín Losada jauna, Cristina de la Cruz Ayuso andrea, César Arrese-Igor jauna, Endika Bengoetxea jauna, Jean Yves Puyo jauna, Sandrine Sana-Chaillé andrea eta Ruth Zimmerling andrea.

Ezin etorria adierazi dute: Eunate Elio andreak, Teresa Riesgo andreak eta Gemma Espigares andreak.

Unibasqen aldetik Aitor Zurimendi jauna (zuzendari ondokoa) eta Eva Fdz. De Labastida andrea (ebaluazio arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren akta onartzea. (O)  
**Onartzen da akta.**
2. Zuzendariaren txostena.
3. Doktorego programen jarraipen protokoloaren eranskinak. (O)  
**Onartzen dira eranskinak.**
4. AUDIT programaren arabera, KBS ezarpena ziurtatzeko txosten ereduak. (O)  
**Onartzen da ziurtatzeko txostena.**
5. DOCENTIA gida. (O)  
**Onartzen da gida.**
6. DOCENTIA Batzardea. (O)  
**DOCENTIA Batzardearen kideak onartzen dira.**
7. Galderak eta eskaerak.

(O) Onarpen puntua.